

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Lehenik eta behin, gazteen ikasketa epean zehar etxebizitza edo pisu bat aurkitzeko arazoak antzeman ditugunez, buruhauste hau konpontzea eta bizitza erraztea dugu helburu. Horretarako, *Euskhabita* deituriko egitasmoa garatu dugu, aplikazio moduan, gazteen beharretara gehien egokituko diren aukerak eskeintzeko asmoz ikasle profilarren arabera.

Bigarrenik, lehiakideetatik bereizten gaituen ezaugarri nagusia zerbitzua eskaintzeko modua da. Izan ere, aplikazio formatuan eskeiniko da zerbitzua, bai mugikor baita tablet formaturako eskuragarri egongo dena. Gainera, bilaketa azkar eta zehatza ahalbidetzen du, konplexutasunik gabe. Horrez gain, oso erraza da aplikazioaren bitartez beste kide guztiekin harremanetan jartzea eta hori dela eta, bilaketa arrakastatsua izango dela ziurtatzen dugu.

Ohar garrantzitsuak kontuan hartuz, aipatu beharra dago aplikazioaren prezio eskuragarria. Izan ere, 7,99€ko prezioa izango du eta deskontuak jasotzeko aukera anitzak emango ditugu.

Diseinuari dagokionez, oso aplikazio garatua izango da. Enpresako langile diren informatikoei esker posible izan da kalitatezko diseinu bat izatea, baina ez soilik kalitatezkoa eta ikusgarria, baizik eta erraza ulertzeko nahiz kontrolatzeko ere. Izan ere, diseinu erakargarriari garrantzia eman arren jarraitu beharreko pausoak eta gida argi izatea da garrantzitsuena.

Beste propietate batzuei buruz hau da aipatu beharrekoa: Aplikazioa guztiz segurua da eta birusen edo interneten dabilzan gauzan arraroen beldurrik gabe erabili daiteke. Izan ere, lan handia eginez gero gailu kaltegarriak kanporatzea lortu dugu gure bezeroei hoberena eta ziurrena aurkezteko. Bestetik, zenbaitetan aipatu bezala oso erraza da erabiltzeko nahiz eta egitura modernoa duen, baina gehienbat gazteetara bideratua izanik ohitza ez da lan zaila izango. Gainera, zerbitzua ere oso pertsonalizatua da eta arazoren bat edukiz gero gure enpresarekin harremanetan jarri eta azkartasunez eta kalitateko zerbitzu bat emanez saiatuko gara konponbidea bilatzen arazoari. Azkenik, gure enpresak aurkeztutako aplikazioari dagokionez, esan beharra dago oso inobatiboa dela merkatuan dauden beste zenbait aplikazioei begiratuz eta prestazioak nahiz eskaintzen diren berritasunak gure aplikazioaren partetik izugarri onak eta eraginkorrak direla.